



UDALA

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Europako herrialdeetarako migrazio fluxua errealitate geldiezina da azken urteotan, ezberdintasun sozialen, krisi humanitario eta ekonomikoen eta Afrikako, Europako Ekialdeko eta Ekialde Hurbileko gerra gero eta ugariagoen ondorioz.

Drama humanoa da, haien herrietatik ihesi datozen milaka eta milaka pertonen heriotza eragiten duena. Hala ere, mundua lekuko isila da eta mendebaldeko agintarien ezintasuna eta geldotasuna gero eta nabariagoak dira.

Azken urteotan barne gerrek eta okupazio militarrek exodoak eragin dituzte Sirian, Iraken edo Afganistanen. Azkenaldian, horri beste errealitate bat gaineratu zaio, fanatikoa eta muturrekoa, Ekialde Hurbila ez ezik, Europako herrialdeak ere atentatu eta beldurra hedatzeko ekintzez kolpatu dituena.

Errealitate berri honen irtenbidea konplexua dela jakinda, onartezina da Europar Batasunaren eta haren gobernuetako agintari politikoen isiltasun mingarria. Gatazkek eta giza eskubideen urraketak eragindako migrazio fluxu honi ezin zaio erantzun alanbre hesiez eta jazarpen militarraz, ezta bizirik jarraitzeko ihesi datozenei merkataritza kuotak ezarrita ere.

Antzeko egoeretan, Markina-Xemeingo herriak beti erakutsi duen elkartasuna aldarrikatu nahi du orainoan ere. Orain dela ia 25 urte Balkanetako gerra hasi zenean, Markina-Xemeingo herriak bere eskuzabaltasuna erakutsi zuen Bosniatik ihez etorritako familiak hartuz, honezkero markina-xemeindar bihurtutako pertsonak. Elkartasun horrek Markina-Xemein ezaugarritu du, eta ezaugarritzen du oraindik ere eta elkartasun horri eutsi nahi diogu, Siria eta inguruko herrialdeetako gatazkek sortutako drama humanitarioen aurrean.

Honengatik guztiarengatik, Markina-Xemeingo ko EH Bildu eta EAJ-PNV udal taldeek honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau aurkezten dute.

1.- Markina-Xemeingo Udalbatzak adierazten du gure herria, Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna daukala, baita konpromiso bera daukaten beste udal batzuekin eta batez ere Lea-Artibai eskualdekoekin tokiko sare bat egituratzeko.

2.- Markina-Xemeingo Udala prest dago Eusko Jaurlaritzarekin eta EAeko gainerako erakundeekin batera lan egiteko, egoera honi erantzun integrala eta koordinatua emateko asmoz; jaurlaritzari eta Foru Aldundiei, eskuera daukaten baliabideak bideratzeko eskatzen diegu.

3- Europar Batasunak erantzukizun garbia du errefuxiatuen exodoa eragin duen Ekialde Hurbilaren desorekatze egoeran. Horregatik, krisi humanitario honi modu aktiboan eta elkartasunez eta justizia humanitarioaz erantzuteko eskatu behar zaie bertako estatu kideetako agintari eta gobernuei. Markina-Xemeingo Udalbatzak Europar Batasunari eskatzen dio:

- a. Babes eta migrazio politikak batzeko printzipioa betetzea, besteak beste, babesa emateko Europar Sistemara bideratzea.
- b. Europari babesa eskatzen dioten pertsonen sarbide segurua emateko bisatu humanitarioak.
- c. Gatazka egoeran dauden herrialdeen mugakide diren esparruetan, europar babesa eskatzeko harrera zentroak zabaltzea.
- d. Europar herrialde ezberdinetan errefuxiatu kuotak banatzeko irizpidea eta sistema definitzea.
- e. Babesa emateko Europar Agentziari (EASO) ematen zaizkion finantza-baliabideak handitzea.
- f. Mediterraneo aldeko herrialdeetan eta bereziki Grezia eta Italian etorkinak babesteko eta erreskatatzeko Frontex sistemarako (Triton eta Poseidon eragiketarako) baliabideak handitzea.
- g. Eta gerra hauetatik ihes egiten duten edo eta tragedia hau aprobetxatzen duten mafien biktimen diren pertsonak hartzeko beharrezko bitartekoak bideratzea.

4.- Udalak bat egiten du beste Udal eta Autonomia Erkidego batzuekin, Espainiako Gobernuari eta Europar Batasuneko Erakundeei Europan babe eskean dabilzan milaka pertsonen jarrera eta konponbide azkarra eta eraginkorra eskatzerakoan.



UDALA

5.- Udalak baliabide materialen inbentarioa egingo du ahalik eta arinen, errefuxiatuen behin-behineko edo eta behin-betiko egonaldietarako dituen baliabideak zeintzuk diren jakiteko.

6.- Udalerrri euskalduna garen heinean, daukagun ondare baliotsuena emateko euskara ikasteko beharrezko dituzten baliabideak jarri edo indartuko ditugu.

7.- Mozio hau udalak dituen bitarteko ezberdinen bitartez jakinarazi zaie herritarrei”.

MARKINA-XEMEINen, bi mila eta hamabosteko urriaren 9an.